

**2001EKO URRIAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Laua

HILABETEA: Urria

URTEA: Bi mila eta bat

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUA: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Pello Garaialde Goikoetxea
Jose Antonio Guirado Tristan
Josi Insausti Mujika
Jon Berbel Aiestaran
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge
Jorge Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta
Leire Lopez Zurutuza
Aimar Larrea Garin

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTAK

2001eko uztailaren 12an eta 19an egindako batzarraldietako akten eta 2001eko irailaren 14an egindako batzarraldiko aktaren berri eman ondoren, Alkate jaunak proposatuta ondorengo aldaketa egin da:

AURREKONTUA izeneko puntuan, PSE-EE/PSOEko ordezkariaren jarduna aipatzen duen tokian: “600 partidas que son 600 esfuerzos, 600 servicios, 600 gestiones, 600 nuevas ideas”, esaten duenean, beste hau adierazi behar du: “600 partidas que son 600 esfuerzos, 600 servicios, 600 gestiones, y nuevas ideas”.

Beste inolako aldaketarik egin behar ez denez, aipatutako aktak aho batez onartu dira.

2- ARAU SUBSIDIARIOAK

Alkate jaunak, hirigintza-batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

"Gaia: Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioetan 22. Hirigintza Areako arloaren aldaketa egiteko behin-behineko onespena.

Udalbatza Osoak 2001eko uztailaren 12ko datarekin, Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioetan 22. Hirigintza Areako arloaren aldaketa egiteko behin-behineko onespena eman zuen eta espedientea jendaurrean jarri zen hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, “El Diario Vasco-n” eta “Euskaldunon Egunkarian” iragarkiak ere argitaratuz. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, hirigintza-batzordeak Udalbatzari ondorengo proposamena egiten dio.

Lehenik. Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioetan 22. Hirigintza Areako arloaren aldaketa egiteko behin-behineko onespena ematea.

Bigarren. Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, hala badagokio behin betiko onespina eman dezan."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da hirigintza batzordeko proposamena.

3- SOZIETATE INSTRUMENTALA

Alkate jaunak, Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

"Gaia: sozietate instrumentala

2001eko maiatzaren 24an Udalbatza Osoak, babes ofizialeko etxebizitzak sustatu eta eraikitzeko, etxebizitzak prezio tasatuan egiteko eta industri lurzorua sustatu eta kudeatzeko sozietate instrumentala eratzeko sortutako batzorde aztertzailearen oroitidazkiari hasierako onespina eman zion eta jendaurrean jarri zuen hogeita hamar eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere iragarkia argitaratuz. Epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Sozietate anonimoa eratzeko aukera onartu zenez eta kapitala 6.000.000 pezetarekin eta diruzkoak ez diren ondasun-ekarpenekin osatzen denez, Merkataritzako Erregistratzaileari peritu bat izendatzeko eskatu zitzaion ondasun horiek baloratzeko. 2001eko urriaren 2an sarrera izan du, aipatutako perituaren txostenak eta Sozietatera ekarritako ondasun horien balioa 70.599.000 pezetakoa dela esaten du.

Horren ondorioz, batzorde honek, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Oroitidazkia behin betiko onartzea.

Bigarren. "Beasain lantzen" izeneko Sozietate Anonimoa arautu behar duten estatutuak onartzea. Despoltsatutako kapitala 76.000.000 pezetakoa da eta kapital hori 76 akziotan banatuta dago, akzio bakoitzak 1.000.000 pezetako balioa duela.

Hirugarren. Alkate jaunari, erabaki hau formaltzeko behar diren dokumentuak sinatzeko ahalmena ematea."

Jarraian, Patxi Plazaolak ondorengo adierazi du: "Batzorde eragilea osatzeko garaian malgutasunez jokatu da, Udalaren ordezkari guztiak hor egon behar dutela pentsatuta. Gaur egun Udalak eraketa bat du, baina gerta liteke hemendik urte batzuetara beste eraketa bat izatea. Beraz, bost eta hamar kide arteko kopuruz osatutako talde eragilea egitea proposatzen da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: "Nuestro voto no va a ser favorable por las siguientes razones:

En el artículo 2 de los Estatutos, no se contempla como objeto social, la promoción de viviendas reservadas a familias numerosas.

En el artículo 17 de acuerdo con la Ley de Sociedades Anónimas, debe constar expresamente cual va a ser la retribución de los Consejeros. No cabe el y/o.

Se echan en falta artículos que establezcan la intransmisibilidad de las acciones, así como la imposibilidad de establecer derechos reales sobre las mismas.

Nuestra postura por lo tanto, va a ser la de la abstención."

Alkate jauna (EAJ/PNV-EA): "La intransmisibilidad de las acciones está claro, ya que sólo es accionista el Ayuntamiento."

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: "Orokorrean ados gaude, baina sozietatearen helburuetan ez da azaltzen, etxebizitzak alokatzeko politika ere kudeatzea."

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: "Sozietatearen helburuetan besteak beste, babes ofizialeko etxebizitzak sustatu eta kudeatu esaten du. Ez da nahi izan gehiago zehazterik, pentsatzen dugulako modu zabalean jarrita, hori ere sartzen dela. Dena dela ez du esaten hori egin ez dezakeenik."

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: "Bai, baina hemen bi gauza daude. Alde batetik, Udaletxeko babes ofizialeko etxebizitzak eta beste aldetik, orain dela gutxi egiten hasi garena, hau da sustatzaile pribatuekin hitzartu

beraiek egiten dituzten babes ofizialeko etxebizitzak guk kudeatzea jendeari emateko garaian.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Hemen pribatuekiko ezer ez da aipatzen, publikoa baizik.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Bai, baina guk kasu batzuetan behintzat baldintza moduan jarri diezaiekegu sustatzaileei, berek egindako babes ofizialeko etxebizitzan banaketa, Udalaren kargu uztea eta Udalak bere aldetik sozietate horri eman diezaioke horren kudeaketa. Nik esaten dudana da helburuetan hori sartzea. Ez diot inolako eragozpenik ikusten.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Kasuak desberdinak izan litezke, baina lehen esan dudana bezala hobeto iruditzen zaigu helburua era zabalean jartzea.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Nik nire zalantzak ditut, baina interpretazio orokorra bada sozietateak hori egin dezakeela, gure botoa aldekoa izango da.”

Andoni Antxia (Batasuna) jaunak: “Jose Luisek aipatutakoari buruz esan, guk pentsatzen dugula hori inplizituki sartuta dagoela eta horren ondorioz proposamen honi baiezkoa emango diogu.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “En cuanto a la mención a las familias numerosas que ha hecho Julio Herreros, decir que, la sociedad es la que tiene que decidir cuales van a ser los baremos y criterios para adjudicar. Pensamos que la mención a las familias numerosas está incluida en la propuesta. Respecto al tema de la retribución, no lo concretamos porque así ha venido formulado desde el servicio jurídico y así está funcionando en otras sociedades.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, BATASUNA, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (PP)

Horren ondorioz gehiengo absolutuarekin onartu da hirigintza-batzordearen proposamena eta estatutuen testua ondorengo da:

**“BEASAIN LANTZEN” SOZIJETATE ANONIMOA
MERKATARITZAKO SOZIJETATEAREN ESTATUTUAK**

I. TITULUA

IZENA, HELBURUA, HELBIDEA ETA IRAUPENA

1. ARTIKULUA -

BEASAIN LANTZEN SOZIJETATE ANONIMOA izenarekin eratzen den Sozietatea Anonimoa Estatutu hauetan eta indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko da.

2. ARTIKULUA -

Sozietatearen helburua babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio finkatuko etxebizitzak sustatu eta eraikitzea izango da, eta, halaber, industriarako lur-zorua sustatu eta kudeatzea Beasainen eta bertako biztanleen onurarako.

3. ARTIKULUA -

Sozietatearen helbidea BEASAINen finkatuko da Udaletxean (San Martin plaza, z/g),.

4. ARTIKULUA -

Sozietatearen iraupena mugagabea izango da. Bere jarduera Merkataritzako Erregistroan izena ematen den egunean bertan hasiko da, Sozietate Anonimoen buruzko Legearen 7. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe.

II. TITULUA

5. ARTIKULUA -

Sozietatearen kapitala HIRUROGEITA HAMASEI MILIOI PEZETAKoa (76.000.000 pta.) izango da, 1.000.000 PEZETAKO HIRUROGEITA HAMASEI AKZIO izendunez osaturik. Akzioak serie bakar batekoak izango dira, jarraian zenbaturik BATetik HIRUROGEITA HAMASEIra, biak barne.

Sozietateak akzioen eta akziodunen erregistro-liburu bat izango du, eta bertan jasoko dira akzioen jabetza, akziodunen izena eta helbidea, eta, hala egokitzen denean, gerta daitezkeen eskualdaketak eta horien gainean era daitezkeen eskubide errealak ere adieraziko dira.

6. ARTIKULUA -

Akzioak ordezkatzeko dituzten tituluak liburu taloi-liburuxketan emango dira, eta Gerenteak edo, hala dagokionean, Administrazio Kontseiluko bi kidek sinaturik egongo dira.

Sozietateak gaitasuna du, egoki irizten dionean, akzio bat baino gehiago barnebiltzen dituzten tituluak emateko.

7. ARTIKULUA -

Sozietateak obligazio izendunak edo eramailearentzakoak jaulki ditzake, interes finkoan, amortizazio jakin batekin eta bere ondasunaren bermearekin.

Akziodunen Batzar Nagusiari dagokio jaulkipenak, interes-tasak, amortizazio-epeak eta honelako kreditu-eragiketei buruzko erabakiak hartzea.

8. ARTIKULUA -

Beasaingo Udala izango da Sozietate honen akziodun bakarra, eta ezaugarri hori zehazki ohartaraziko da, dagokion zigilu-markaren bidez, akzioen behin-behineko frogagiri guztietan eta akzioen ordezkotutako titulu guztietan.

9. ARTIKULUA -

Akzioek bazkide izaera ematen diote haien legezko titularrari, eta Sozietate Anonimoei buruzko Legeak eta Estatutu hauen arabera eskubide eta betebeharrak ematen dizkiote.

III. TITULUA

SOZIEATEAREN ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

10. ARTIKULUA -

Akziodunen Batzar Nagusia eta Administrazio Kontseilua izango dira Sozietatea arautu eta administratuko duten organoak.

Haren ordezkari Administrazio Kontseiluari dagokio.

IV. TITULUA

AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

11. ARTIKULUA -

Batzar Nagusia da Sozietatearen organo gorena, eta haren erabakiak gainerako organoek eta haien ordezkari guztiek bete behar dituzte.

Beasaingo Udala izanik Sozietateko akziodun bakarra, Batzar Nagusia Udalbatzak eratuko du, eta hango kide bakoitzak sozietatearen kapitaleko zati berberaren ordezkari izango du.

Udalbatza, Eguneko Gai-zerrendaren dagokion puntuan, Akziodunen Batzar Nagusi edo Unibertsal bihurtuko da, eta dagozkion erabakiak hartuko ditu Sozietate Anonimoei buruzko Legeak eta Estatutu hauek aurreikusten dutena betez.

12. ARTIKULUA -

Honako Batzar Nagusi mota hauek eratu eta egin daitezke:

a) Ohikoa. Urtearen lehen sei hilabeteen epearen barruan bilduko da, honako gai hauek aztertzeko: Sozietatearen kudeaketa; aurreko ekitaldiko Memoria, Kontuak eta Balantzea onartzea, hala badagokio; emaitzen banaketa; eta indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baldintzak betez Batzarrean aurkeztu diren bestelako gaiak.

b) Ez-ohikoa. Administrazio Kontseiluak hala behar dela erabakitzen duenean bilduko da, edo Udalbatzako eskubide osoko kideenenak

idatziz hala eskatzen duenean. Eskaria egiteko idazki hori, aztertu beharreko gaiak adieraziz, Lehendakariari helaraziko zaio.

c) Unibertsala. Udalbatzako kide guztiak bilkuran izanik, aho batez Batzar Nagusia egitea erabakitzen dutenean, batzarra deituztat eta baliozko eran eratutzat joko da edozein gai aztertzeko ahalmenez.

13. ARTIKULUA -

Batzar Nagusiak, ohikoak nahiz ez-ohikoak, deitzeko eta eratzeko epeak eta moduak eta, halaber, bertako erabakiak hartzeko betekizunak Sozietate Anonimoei buruzko Legeak agindutakoaren arabera ezarriko dira.

V. TITULUA

SOZIETATEAREN ADMINISTRAZIOA

14. ARTIKULUA -

Sozietatea ahalmen zabalekin, Batzar orokorrarenak izan ezik, Administrazio Kontseiluak administratu eta ordezkatu du. Administrazio Kontseilua, kontseilari baldintza izan behar duten gutxieneko bost kideekin eta gehieneko hamar kideekin osatuko da, hau da, Korporazioko Alkate-Lehendakaria eta udalean ordezkapena duen talde politiko bakoitzeko ordezkari bat gutxienez.

15. ARTIKULUA -

Sozietatearen eta Kontseiluaren Lehendakari Udalbatzaren Lehendakaria izango da, hau da, Alkatea.

Administrazio Kontseiluak, hala dagokionean, Lehendakariordea izendatuko du bertako kideen artean.

Idazkaria ere Kontseiluak izendatuko du, eta izendatua bertako kide bat, funtzionario bat edo kanpoko pertsona bat izan daiteke. Kontseiluko kide ez bada, ez du botorik izango.

Kontseiluari dagokio kontseiluko kideen kargu-uztea onartzea eta haien hutsuneak beteko dituztenak izendatzea, Udalbatzako kideen artean, lehenengo

Batzar Nagusia egin bitarteko eperako. Halaber, Idazkaria Kontseiluko kide ez denean, hura kargutik kendu eta ordezkioak izendatzeko gaitasuna izango du.

16. ARTIKULUA -

Kontseiluko kide izatearen karguak lau urteko iraupena izango du, eta agintaldia amaitu orduko kargua utzi egin beharko da.

Nolanahi ere, Batzar Nagusiak, edozein unetan, Kontseiluko kideak bereizi eta izendapen berriak egin ditzake.

17. ARTIKULUA -

Kontseiluko kideek bertaratzeagatiko dieta batzuk edo/eta urte osorako ordainsari bat izan dezakete, Batzar Nagusiak erabaki eta finkatuta.

18. ARTIKULUA -

Kontseilua Lehendakariak egoki irizten dionean edo bertako hiru kidek hala eskatzen dutenean bilduko da.

19. ARTIKULUA -

Administrazio Kontseiluak Sozietatea kudeatzeko ahalmen handienak eta erabatekoenak izango ditu, baina bereziki honako ahalmen eta eskumenak izango ditu:

a) Sozietatearen ordezkari izatea era guztietako Estatuaren Administrazioetan eta Korporazio Publikoetan, eta, halaber, jurisdikzio arruntean, administratiboan, administrazioarekiko auzietakoetan, berezietan, lanekoetan, penaletan eta abarretan; behar diren egintzak gauzatzea edozein instantzian bere eskubideak defendatzeko; eta eskubide horiek erabiltzea epaiketari nahiz epaiketarik kanpo, dagozkien ahalmenak emanaz prokuradoreei eta abokatuak izendatuz Sozietatearen ordezkari eta defendatzaile izan daitezen aipatutako Epaitegi eta Erakundeen aurrean.

b) Sozietatearen negozioak zuzendu eta administratzea, horien kudeaketari etengabeko arreta eskainiz. Helburu horri begira, Sozietatearen aginpidea, administrazioa eta jarduera bideratzeko arauak ezarriko ditu, bertako zerbitzu teknikoak, administratiboak eta kudeatzaileak antolatuz, arautuz eta, behar izanez gero, kontratatuz.

c) Era guztietako egintzak eta kontratuak egitea edozein ondasun, zerbitzu edo eskubideri dagokionez; sozietatearen helburua betetzeko xedez eskuratzeko edo besterentzeko egintzak gauzatzea egoki iritzitako kontratu, hitzarmen edo baldintzen bidez; Sozietateko ondasunen gainean hipotekak eta bestelako kargak edo eskubide errealak sortzea edo ezabatzea; eta nolana hiko pribilegio edo eskubideri uko egitea, ordainketa bidez nahiz ordainketarik gabe, eta kobraketak edo ordainketak onartzea eta egitea. Halaber, Sozietateak beste enpresa edo sozietate batzutan esku hartzea erabaki dezake, sortzen ari direnetan nahiz lehendik sorturik daudenetan.

d) Era guztietako banku-eragiketetan Sozietatearen sinadura eramatea eta haren izenean aritzea, kontu korranteak irekiz edo itxiz, haietaz baliatuz, truke-letretan igorle, onartzaile, abal-emaile, endosu-emaile, endosu-hartzaile edo edukitzaile gisa arituz; kredituak irekitzea; maileguak, bermeekin edo bermerik gabe, hitzartzea edo kitatzea; fondo, errenta, kreditu edo balioen transferentziak egitea, dirua igortzeko edo mugitzeko edozein prozedura erabiliz; kontu amaituen saldoak onartzea; gordailuak edo fidantzak eratu edo deuseztatzea; kontuak konpentsatzea, aldaketak gauzatzea eta abar. Hori guztia Espainiako Bankuan nahiz Banka Ofizialean edo banku-erakunde pribatuetan, Aurrezki Kutxetan eta finantza erakundeetan edo Erkidegoaren nahiz Estatuaren Administrazioiko edozein organismotan egin dezake.

e) Sozietatearen fondoak nola erabili eta non jarri edo inbertitu erabakitzea.

f) Sozietateko ondasunek dituzten arriskuak estaltzeko fondo berezi bat eratzeko proposamena egitea. Estaldura hori ondasun guztiekikoa izan daiteke, inolako aseguru ez dutelako, edo zati batekikoa, Sozietateak aseguru-etxeekin hitzarturik dituen aseguruak estaltzen ez duten balioaren arabera.

g) Batzar Nagusien deialdia, ohikoena nahiz ez-ohikoena, egitea erabakitzea, Estatutu hauen arabera dagokion garaian eta eran, betiere eguneko gai-zerrenda idatziz eta deitzen den Batzar motaren arabera egoki diren proposamenak eginez.

h) Ohiko Batzar Nagusia egiteko deialdia baino lehen, aurreko abenduan amaitutako ekitaldiaren balantzea, galera eta irabazien kontua eta, baleude, mozkinen banaketarako proposamena azaltzea. Halaber, txosten labur bat osatuko du agiri horien edukia eta ekitaldiko gertakari garrantzitsuenak bilduz.

i) Ahalmendunak izendatzea orokorrean edo gai jakinetarako, eta, hala behar izanez gero, Sozietateko pertsonala izendatu edo kanporatzea, dagozkien ordainsariak esleituz.

j) Bere egitekoak eskuordetzea, osorik edo neurri batez.

k) Bere jarduera arautzea, Legeak edo Estatutu hauek berariaz aurreikusten ez duten heinean.

Eta, orokorrean, Administrazio Kontseiluak Sozietatearen ahalmen, eskuduntza eta gaitasun guztiak izango ditu, Legeak edo Estatutu hauek berariaz Akziodunen Batzar Nagusiaren esku jartzen dituztenak salbuetsiz.

20. ARTIKULUA -

Kontseiluaren erabakiak botoen gehiengo bidez hartuko dira, baina Lehendakariak kalitatezko botoa izango du, berdinketa kasuetan erabakitzeko.

21. ARTIKULUA -

Administrazio Kontseiluaren eraketa, jarduera eta araubidea Sozietate Anonimoei buruzko Legeak eta gainerako xedapen erabilgarriek ezarritakoaren menara egongo dira.

22. ARTIKULUA -

Administrazio Kontseiluak edozein unetan eskuordetu ditzake bere ahalmenak bertako kide baten alde, eta, hala egiten denean, kide hori Kontseilari-Ordezkari gisa arituko da.

Halaber, Zuzendaritza Nagusirako Gerente bat edo gehiago izenda dezake egoki iritzitako ahalmenak eskuordetuz eta kontratu-baldintzak ezarriz. Kontseilari-Ordezkari bategi, Zuzendari-Gerentea edo Gerentea eta Sozietateko gainerako pertsonala Kontseilari-Ordezkariaren aginduetara egongo liriteke.

23. ARTIKULUA -

Kontseilari-Ordezkariari edo Gerenteari inoiz ezingo zaizkio e), f), g), h) eta k) apartatuetan adierazitako ahalmenak eskuordetu, eta ezta ere c)

apartatuan aurreikusitako Sozietatearen ondasunen gaineko hipotekak edo bestelako kargak edo eskubide errealak eratzeko edo beste enpresa edo sozietate batzutan esku hartzea erabakitzeke eskumenak. Apartatu horiek guztiak Estatutu hauetako 19. artikulukoak dira.

VI. TITULUA

SOZIEATEAREN EKITALDIA, BALANTZEA, IRABAZIAK ETA ERRESERBAK

24. ARTIKULUA -

Ekitaldi naturala hasi eta bukatu urte naturalarekin batera egiten da. Urteko balantzea urte bakoitzeko abenduaren hogeita hamaikan itxiko da, eta Sozietatearen ekitaldi osoko kontu guztiak barnebilduko ditu. Salbuespenez, lehen ekitaldia Sozietatea Merkataritzako Erregistroan inskribatzen den egunean hasiko da.

25. ARTIKULUA -

Urte bakoitzeko lehen lau hilabeteetan, Legeak ezarritako baldintzak betez, Balantzeak, Galera eta Irabazien kontua, mozkinak banatzeko Proposamena, baleude, eta, egoki iritziz gero, aurreikuspen eta autoaseguruaeren erreserba berezien eraketa osatuko dira, ekitaldiaren azalpenerako Memoriarekin batera. Hori guztia, Batzar Nagusiaren esku jarri aurretik, Kontuen Zentsoreek aztertuko dute eta dagokien txostena egingo dute.

26. ARTIKULUA -

Sozietatearen negozioak ustiatuz lortutako onurei gastu orokorrak, soldatak, efektuen balioen gaineko interesak eta amortizazioak, materiala, makineria eta sozietatearen aktiboa osatzen duten era guztietako ondasunak murriztu ondoren gelditzen diren emaitzek osatuko dute, baleude, mozkin likidoa.

27. ARTIKULUA -

Ekitaldiko mozkin likidoari, balego, legezko erreserbarako esleipena murriztu ondoren, Batzar Nagusiak, Administrazio Kontseiluaren proposamenez, erabakitzen duen xedea emango zaio.

VII. TITULUA

SOZIETATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

28. ARTIKULUA -

Sozietate Anonimoak Arautzeko Lege Berezian aurreikusten den kasuetan desegingo da Sozietatea, eta, halaber, bere galerak Sozietatearen kapitalaren erdia baino handiagoak baldin badira.

Sozietatea desegiteko nahiko arrazoi izan daitezke Sozietatearen helburua betetzeko gehiegizko zailtasuna, zerbitzuak eskaintzeko beste modu baten komenigarritasuna edo epe luzerako udal kudeaketarako planak eratzeko lehentasun arlokoak. Erabaki hori hartzeko Batzar Nagusiko eskubidezko kideen bi herenen baiezko botoa beharko da.

Sozietatearen likidazioa eta Sozietatearen ondasunen zatiketa indarrean dauden xedapenak betez eta Akziodunen Batzar Nagusiak erabakitakoaren arabera egingo dira.”

4- OBRAK KONTRATATZEA

a- Ezkiaga etorbideko proiektua onartzeko eta obrak kontratatzeko lehiaketa irekiaren bidez baldintza-plegua onartzeko proposamena.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Ezkiaga etorbideko hirigintza-obrak kontratatzea

Ezkiaga etorbidea hiritartzeko 167.141.141 pezetako kopurua duen obra-proiektua aztertutik, batzorde honek, kopuru hori aurrekontuko baliabide arrunten %10 baino handiagoa delako obrak kontratatzea Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokionez, ondorengo erabaki-proposamena egiten dio Udalbatza Osoari,

Lehenik. Ezkiaga etorbidea hiritartzeko obra-proiektua onartzea.

Bigarren. Obra horiek lehiaketa irekiaren bidez kontratatzeko egindako baldintza-plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.”

Jarraian, Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak proiektua laburbilduta azaldu du, esanez, gaur egun dauden lau erreietatik, bira pasatuko dela, espaloiak zabaldu eta bide gorria egitea aurreikusita dagoela eta gainera ingurune atsegina sortuko dela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da hirigintza-batzordearen proposamena.

b- "Urbanizaciones Iruñarekin" sinatutako kontratua aldatzea 18 HAko Igartzako futbol-zelai berrian belar artifiziala jartzeko.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola, hirigintza batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

"Udalbatza Osoak, 2001eko martxoaren 15ean, 18. Hirigintza Arian, onartutako proiektuaren arabera futbol-zelaia egiteko obrak "Urbanizaciones Iruña S. A." enpresari esleitzea erabaki zuen 215.672.530 pezetako zenbatekoarekin. Proiektu horretan ez zen aurreikusten belar artifiziala jartzea.

Gaur egun obrak aurkitzen diren egikaritze-fasean, premiazkoa da belar artifiziala jartzea, komunetako materialak aldatzea eta ureztatze-sistema jartzea.

Horretarako, "Urbanizaciones Iruña S. A." enpresak, Udalak alde aurretik eskatuta, 41.752.041 pezetako (250.934,82 euro) eskaintza aurkeztu du.

Aurkeztutako eskaintzak, ez du gainditzen legeak onartzen duen esleipen-kontratuaren %20ko kopurua. Horren ondorioz, Udalbatza Osoari ondorengo ERABAKI-PROPOSAMENA egiten dio:

"Urbanizaciones Iruña S. A." enpresarekin 2001eko maiatzaren 2an sinatutako kontratua aldatzea, bigarren lerrokadan aipatzen diren obrak ere egin ditzaten."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

5- EUSKALTEGIKO PLANTILA

Alkate jaunak Patxi Plazaola, Euskaltegiko Lehendakariari eman dio hitza eta honek honela dio:

“Aurkezten den plantila, ohikoa da. Ez dago inolako aldaketarik. Beraz, 2001eko Euskaltegiko plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea proposatzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da, 2001eko Euskaltegiko plantila eta lanpostuen zerrenda.

6- GKE

Alkate jaunak Ana Asla, Gizarte-ongizateko batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

“OCSI erakundeak bidalitako idatzian El Salvadorren duen taldean arazoak sortu direla dio eta horren ondorioz “Ura eta estolderia herritarren partaidetzarekin” izeneko proiektuaren jarraipenik ezin dutela egin. Hori dela eta Beasaingo Udalak onartutako 1.500.000 pezeta erakundeak bultzatutako beste proiektu baterako erabiltzea eskatu du.

Eskaera hori, gizarte-ongizate batzordeak 2001-07-16an egindako bilkuran onartua izan zen.

OCSI erakundearekin harremanetan jarri gara eta hasita duen “Mira ibaiarroaren garapena” izeneko proiektuari diru-laguntza ematea proposatu digu; hori dela eta Batzordearen oniritzia duenez, Udalak Osoko Bilkuran aurkeztutako eskaera onartzea eskatzen dut.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez hartu da ondorengo erabakia:

“Udalbatza Osoak 2001eko maiatzaren 24an hartutako erabakia aldatzea. Erabaki horren bidez, OCSI erakundeari “Ura eta estolderia herritarren partaidetzarekin” proiektua garatzeko dirulaguntza ematen zitzaion. Horren ordez ordea, “Mira ibaiarroaren garapena” izeneko proiektua finantzatzeko izango da bere garaian emandako dirulaguntza.

Aldaketa, erakundeak berak eskatuta onartu da, izan ere arazoak sortu dira lehenengo proiektua garatzeko.”

7- ARAUTEGIA

Alkate jaunak Ana Asla, Gizarte-ongizateko batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gizarte-ongizate batzordean, espetxeetan preso dauden pertsonen familientzako banakako garraio-laguntzen arautegia landu dugunez saiatuko naiz baldintzak eta irizpideak azaltzen. Idatzi honetan emandako dirulaguntzak presoen familientzat emango dira. Giltzaperatuak eta zigorra betetzen ari diren espetxeetara bisita egitera joateak dakartzan garraio-gastuak estaltzeko xedez. Onuradunak hurrengo hauek izan daitezke:

- Euskal Herritik kanpo espetxeetan zigorra betetzen ari diren presoen familiakoak.

Era berean zehaztu egiten da, preso bakoitzeko sendi edo familiako kide bat izan daitekeela onuradun eta, biek, familiakoa zein preso, Beasainen erroldatua egon behar dutela.

Dirulaguntzak emateko prozedura 3. atalean zehazten da eta ondorengo izango da:

- a- Laguntzaren eskaera egin. Horretarako guk inprimakia prestatuko dugu.
- b- Gizarte-laguntzailearen proposamen teknikoa jaso.
- c- Gizarte-ongizate batzordeak dirulaguntza emateaz aldeko edo aurkako proposamena egin.
- d- Alkatearen ebazpena.

Hau betiko prozedura da edozein motatako laguntzak jasotzeko gure batzordean.

Gutxieneko laguntza jasotzeko aurkeztu beharreko agiriak, hauek dira:

- a- Eskaera egin.
- b- NAren kopia
- c- Eskatzailearen familiartekoa dagoen espetxera egindako bidaiaren agiria, edo bidaia egina duela dioen aitorten zinegina.

Edozein kopurutako sarrerak izanda ere, hilean behin bidaia bat egiteko gutxieneko laguntza izango du.

Beste aukera bat badago eta zera da, bi edo hiru bidaia egiteko dirulaguntza lortzea. Horretarako baldintzak desberdinak dira. Hemen aipatzen diren baldintzak batzordean erabiltzen ditugun irizpideen berdinak dira.

Dirulaguntzaren ordainketa hileroko egingo da. Ordainketa egin aurretik familiakoak preso dagoen espetxera bidaia egin duela frogatu beharko du ahal duen neurrian. Preso bakoitzeko eskaera bat bakarrik egin ahal izango da. Beraz, presoaren familiakoek erabaki beharko dute eskaera noren izenean egin. Eskaera egin duena izango da dirulaguntzaren erabilera zuzenaren erantzule, dirulaguntza jasotzeko eskubidea badute eta Udalaren aurrean, familiaren ordezkari izango da dirulaguntza hauekin zerikusia duen edozertarako.

Zazpigarren atalean aldiz, ondorengo aipatzen da: "Udaleko gizarte-ongizate batzordeak proposatuta, Alkateak edota berak eskuordetza emandako organoak ebatziko ditu araudi honetan jasota ez dauden gaiak."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: "Pasamos de largo"

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: "Aurrekontuak aurkeztu zirenean guk azaldu genuen gure jarrera. Guri ez zaigu gustatzen nola planteatu den laguntza hau. Araudia bera ere ez zaigu gehiegi gustatzen eta pentsatzen dugu aldaketa batzuk egin beharko lirakeela. Araudian esaten da, laguntza Euskal Herritik kanpo espetxeetan zigorra betetzen ari diren presoaren familiakoei bakarrik eskainiko zaiela. Guk horri ez diogu inolako zentzurik ikusten. Zer gertatzen da Martutenen edo Basaurin dagoen preso baten familiarekin GGDS edo OE laguntzen erabiltzailea izanda?. Zergatik ukatzen zaio laguntza horri eta aldiz ematen zaio kanpoan dagoenari?. Logikoena izango litzateke "Euskal Herritik kanpo" aipamena kentzea, izan ere, norbaitek

laguntza eskatzen badu, baloratu egin beharko da laguntza behar duen ala ez. Bestalde aipatzen da, familia zein preso, Beasainen erroldatuta egon behar dutela. Horrek ere ez du inolako zentzurik. Zer gertatzen da Beasaingo familiako seme bat Donostian erroldatuta badago eta preso gelditzen bada?. Familia horrek, nori eskatu behar dio laguntza?. Logikoena da Beasainen eskatzea, presoak berak laguntza eskatzen ez duelako. Bestalde arautegian azaltzen da, gutxieneko laguntza eta laguntza osagarria eta nire ustez hor arautegi guztietan dugun irizpidea apurtzen da, zeren eta esaten da “kasu guztietan, diru-sarrera edozein izanda ere, hilero gutxienez joan-etorriko bidaia 1 dagokie”. Horrek zer esan nahi du, adibidez familia batek hilero 20 milioiko diru-sarrera badu, horri ere laguntza emango zaiola?. Jokoz kanpoko historia dela iruditzen zait eta honek bai apurtzen duela orain arte udalak eraman duen irizpide politikoa.”

Ana Asla (EAJ/PNV-EA): “En los casos de presos que estén en Euskal Herria y cuyas familias reciben ayudas del IMI, son atendidos de una manera global por la problemática que tienen y no sólo por el hecho de que un miembro de la familia esté preso y se genere el gasto del desplazamiento.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE): “Lo que aquí se plantea entonces es una normativa específica para ayudar a quienes tienen un familiar preso. A quienes reciben ayudas del IMI, sin embatgo, les excluimos.”

Ana Asla (EAJ/PNV-EA) andreak: “Están contemplados todos los gastos que tienen. Si sólo fuera esto, estaríamos bien. Precisamente se dice que “esten presos fuera de Euskal Herria” porque el viaje mínimo no necesitas justificarlo y de alguna manera hay que limitarlo.”

Andoni Antxia (Batasuna) jaunak: “Gu noski ados gaude. Araudi hau politikoa da eta Legearen aurkako gauza zuzentzeko besterik ez da. Udalak egin dezakeen gauza bakarra, pertsona horiei laguntza ematea da. “Euskal Herrikanpo” azaltzearen arrazoia hori da.

Erroldatua egon beharrari buruz, esan 2. ataleko hirugarren lerrokadan esaten dela, nolana ere, gizarte-ongizate batzordearen esku geldituko dela kasu berezien azterketa eta legokiokeen proposamena egitea. Hau baino formula irekiagorik gutxi dago. Kasu bereziak aztertu egingo dira.

Bestalde esaten denean pribilegio bat besterik ez dela dirua daukaten familiak ere laguntza jasotzea, lehenengo arrazoia balio du.

Dirulaguntzak ez du ezer konponduko, baina hau neurri politiko bat besterik ez dela ulertu nahi ez bada, logikoa da akatsak aurkitzea.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Andonik esan duena borobiltzeko aipatu, hau irizpide politiko bat dela eta ondo dakigu hori horrela izanik, zenbait talde politiko ez daudela honekin ados. Guk uste dugu, ezin dela familia bat zigortu bere kideetako bat preso dagoelako, are gehiago kontuan izanda legeak aitortzen duela presoaren bere ingurunean egon behar duela.”

Ana Asla (EAJ/PNV-EA) andreak: “En el departamento de bienestar social también apoyamos el transporte de los disminuidos físicos y psíquicos cuando van a trabajar a talleres protegidos. Subvencionamos también viajes a drogadictos que están en programas de desintoxicación y no miramos los ingresos de la familia, sino que pensamos que como son recursos que no están en nuestro propio municipio, lo entendemos como una ayuda al transporte para que puedan desplazarse a los centros específicos donde tienen que trabajar o que necesitan esa ayuda y que en Beasain, no existen. El otorgar las subvenciones que ahora se proponen van en esa línea. En todos los municipios no puede haber un centro penitenciario, pero si tienen derecho a estar en el Territorio Histórico donde habitualmente viven. Por eso subvencionamos el transporte por lo menos, una vez al mes sin fijarnos en las condiciones económicas.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Andonik behin eta berriro aipatu du arautegi hau legearen aurka doan zerbait konpontzeko dela. Arautegiak ez dira egiten legearen aurka doan zerbait konpontzeko. Legearen aurka doazen gaiekin, epaitegira joan behar da eta salatu egin behar dira. Kontuan izan behar da halaber, familiak ez dutela legeengatik sufritzen, baizik eta oinazearen oinarria, familiako kide batek delitu larriak egin dituelako dela. Beste gauza bat da preso horiek non egon behar duten. Ni horretan ez naiz sartuko zeren eta guk behin baino gehiagotan Udal honetan esan dugu gu ados gaudela presoak bizi diren tokitik ahalik eta hurbilen egotearekin.

Anak esan du irizpide hau beste programa batzuetan ere aplikatzen dela, baina nik esango nuke gehienetan ez dela aplikatzen. Elbarrituen kasuetan ez da berdina, zeren eta laguntza ez du familiak jasotzen elbarritasuna duenak baizik eta babestutako lantokietan dituzten soldadak txikiak dira.

Beste programa batzuetan, adibidez etxez etxeko laguntzetan, beti kontuan ohi izan dira diru-sarrerak.”

Andoni Antxia (Batasuna) jaunak: “PSE-EE/PSOeko ordezkariak bi gauza aipatu ditu, bata epaitegietara bideratzea eta bestea delitu larriengatik daudela presoak dauden tokietan. Zein epaitegietara joan behar dugu?. Bahiketa batengatik, Barrionuevo eta Vera jaunak libre utzi dtuen epaitegira?. Delitu larriak aipatu dira, baina hemen zinegotzi izandako Txemi Arteaga jauna, hondeatzeko makina bat erretzeagatik, zortzi urte kartzelan egon da. Hori ere delitu larria al da?. Horrelako kasuak pilaka daude. Errealitatea ikusi nahi ez badugu, betikoan gaude.”

Une honetan Patxi Plazaola, irten egin da batzarretik.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV-EA, BATASUNA)

Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSO, PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnez, ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Espetxeetan preso dauden pertsonen familientzako banakako garraio-laguntzen arautegiari hasierako onespina ematea.

Bigarren. Espedientea jendaurrean jartzea 30 eguneko epean alegazio edo iradokizunak aurkezteko eta aurkezten ez badira behin-betiko onartuta geldituko da.

8- ORDENANTZA

Alkate jaunak hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Herri-bidean aulkiak eta mahaiak jartzea arautzen duen ordenantzaren zirriborroa aztertu ondoren, hirigintza-batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

- **Lehenik.** Aipatutako ordenantzari hasierako onespina ematea.

- **Bigarren.** Hogeita hamar eguneko epean jendaurrean jartzea eta alegazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, behin betiko onartuta dagoela ulertuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

PP eta PSE-EE/PSOeko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia (Batasuna): "Orokorrean ados gaude, baina tabernaren kanpoko aldean hiru hankakoak jartzearen debekua ez dugu hain ondo ikusten."

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da hirigintza-batzordeko proposamena.

9- DOHAINTZA

Alkateak esaten du, Jose Mari Azurmendi jaunak, "una vista de Txindoki (Txindokiren ikuspegi bat)" izeneko koadroaren lagapena egiten duela udal-liburutegirako eta kultura-batzordeak dohaintza hori onartzea proposatzen diola Udalbatza Osoari.

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

10- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aurkeztu dira:

KILOMETROAK 2001

Jose Luis Elorza jaunak galdetu du, 2001. urteko Kilometroak Beasainen ospatu behar direla eta Udalaren gastua zenbatekoa izango den.

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: "Se ha asfaltado un tramo de acceso a un caserío detrás del polígono 10. Se ha desbrozado la pista de paseo a Arriarán. Se ha echado "todo uno" en el acceso al caserío Ittola, y en el acceso al AU 23. Se ha acondicionado el polideportivo en cuanto a medidas de emergencia y seguridad se refiere. A todo ésto habría que añadir la dedicación de la policía municipal durante el día que se celebre el Kilometroak. No se ha cuantificado económicamente, pero si quieres haremos un balance. En el presupuesto se

cosignó una partida de 1.000.000 de pesetas, a modo de subvención por celebrarse en Beasain y ser el 25 aniversario. Lo del Kilometroak se ha hecho dimensionando lo que se hace con cualquier acontecimiento que acarrea la concentración de masas en Beasain.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut